GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA OHARRA

Neguko tailerrak Guggenheim Bilbao Museoan

Handi-handia eta ***Espazioa aztertzen*** tailerrak eskaintzen ari da Guggenheim Bilbao Museoa aurtengo neguan, haurrek sormena aska eta askotariko teknikez eta materialez esperimenta dezaten, haien artelanak sortuz ondo pasatzen duten bitartean.

Handi-handia tailerrean txikiek haiek baino margolan handiagoa egiteko erronkari aurre egingo diote. Horretarako artista espresionisten pinturak inpirazio-iturritzat hartuko dituzte, eta artelan harrigarriak egingo dituzte zoruan haien gorputzaren siluetak marraztuz.

Espazioa aztertzen tailerrean, otsailean, eraikuntza futuristak, ezinezko hiriak eta babesleku fantastikoak asmatuko dituzte, Cristina Iglesiasen, Miquel Navarroren, Anish Kapoor-en eta Anselm Kiefer-en lanetatik abiatuta; lan horiek aurretik Museoan ikusteko aukera izango dute.

Larunbat honetan, urtarrilaren 31n, *Handi-handia* tailerra, azkena, izango da, euskaraz. *Espazioa aztertzen* tailerrak otsailaren 1etik 28ra egingo dira, euskaraz eta gaztelaniaz, 3 eta 5 urte eta 6 eta 10 urte bitarteko haurrentzat.

Datak: Urtarrilak 31 / otsaileko larunbat eta igandeak
Ordutegia: 3–5 urte (11:00eta 17:00) eta 6–10 urte (17:00)
Sarrerak txarteldegian eta Museoaren webgunean: 5 € publiko orokorra eta 2,5 € Museoaren Lagunak.
Argibideak: astelehena-ostirala, 09:00–14:00, 944 35 90 90 telefonoan.

www.guggenheim-bilbao.es

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 29an

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia www.guggenheim-bilbao.es webgunean eskuragarri (prentsa eremua).